

eskola 2.0



WEBQUEST / ALTXORRAREN BILA
EARTHQUEST / MEDIASCAPE
WEBQUEST / CAZA DEL TESORO /
EARTHQUEST / MEDIASCAPE

62

DEFINIZIOA Zer da?

Azken hamarkadan, internet bidez argitaratutako edukietan oinarritutako hezkuntza-jardueretako IKT ereduak sortu dira. Talde horretan, honako hauek nabarmen genitzake:

- **Webquest:** jardueraren sortzaile Bernie Dodge-ren esanetan, "ikerketa-jarduera gidatua da, eta, bertan, ikasleek erabiltzen duten informazio gehiena edo guztia internetetik hartua da". Denbora ondo erabiltzea errazteko diseinatuak, WQak informazioaren tratamendura bideratuta daude, informazioa bilatzera baino hein handiagoan. Honako atal hauez osatutako egitura dute: sarrera (aurkezpen dibertigarria), ataza (zer lortu nahi den), prozesua (egin beharreko urratsak), baliabideak (eskuarki loturak), ebaluazioa eta ondorioak (ikaskuntza orokortzera bideratua).
- **Altxorraren bila:** gai jakin bati buruzko informazioa eskuratzeko eta oro har IKTekin eta bereziki internet bidez informazioa eskuratzearekin zerikusia duten trebetasunak eta prozedurak praktikatzeko erabilgarriak diren estrategiak aplikatzera bideratutako jarduera. Honako egitura hau du: sarrera, galderak (helburu jakin batera bideratutako irakurketa sustatzen dute), baliabideak (lotura) eta galdera nagusia (ezagupenen sintesira bideratua).
- **Earthquest:** jarduera geointeraktiboa, hedapen libreko Google Earth aplikazioaren funtzionalitateetan oinarritzen den etapakako bidaia birtuala.

DEFINICIÓN
 ¿Qué es?

- **Mediascape (e-ibilbideak):** ingurune fisikoaren errealitatea eta multimedia edukiak GPSaren bitartez lotzen dituen jarduera geointeraktiboa. Gailu eramangarria eta entzungailuak erabiliz GPS bidez gidatutako ibilbidea egin daiteke; toki interesgarriak bisitatu eta ezagut daitezke ibilbideak aurrera egin ahala aktibatzen diren irudi, bideo eta soinuen bitartez. Esperientzia multimedia bizitzeko aukera ematen dute, audioa garrantzi handiko osagaia duen eta Flasheko joko elkarreragileak, argazki-segidak eta bideoak osagarri dituen istorio batean murgilduta. Bi motatako ibilbideak programa daitezke: ainguratuak, Lurreko toki jakin baterako pentsatuak; eta eramangarriak, esperientzia edozein tokitarako erreproduzitzea ahalbidetzen dutenak eta interneti esker beste toki batzuetan erreproduzitzeko erraz bana daitezkeenak.

En la última década han ido apareciendo modelos TIC de actividades educativas basadas en contenidos publicados a través de Internet. Dentro de este grupo se destacan:

- **Webquest:** según define su creador Bernie Dodge, "... es una actividad de investigación guiada en la cual la mayoría o toda la información utilizada por los alumnos procede de Internet. Diseñadas para favorecer un buen uso del tiempo, las WQ están más orientadas al tratamiento de la información que a su búsqueda". Presenta una estructura con los apartados siguientes: introducción (presentación divertida), tarea (qué se espera conseguir), proceso (pasos a seguir), recursos (generalmente enlaces), evaluación y conclusión (orientada a la generalización del aprendizaje)
- **Caza del tesoro:** actividad orientada a aplicar estrategias útiles para adquirir información sobre un tema determinado y practicar habilidades y procedimientos relacionados con las TIC en general y con el acceso a la información a través de la Internet en particular. Presenta la siguiente estructura: introducción, preguntas (que animan la lectura orientada a una finalidad específica), recursos (enlaces) y la gran pregunta (orientada a la síntesis de conocimientos).
- **Earthquest:** actividad geointeractiva, viaje virtual por etapas que se basa en las funcionalidades de la aplicación Google Earth de libre difusión.
- **Mediascape (e-rutas):** actividad geointeractiva que enlaza la realidad del medio físico con contenidos multimedia a través del GPS. Con un dispositivo portátil y unos auriculares se puede recorrer un itinerario guiado por GPS, visitando y descubriendo algún lugar interesante con imágenes, vídeos y sonidos que se activan a medida que adelanta en su recorrido, y que le

permiten revivir una experiencia multimedia a partir de la inmersión en una historia que tiene un componente importantísimo en el audio, y que completa con secuencias de fotografías, vídeos y juegos interactivos en Flash. Se pueden programar dos tipos de itinerarios; los anclados, pensados para un lugar concreto y específico del planeta, y los portables, que permiten reproducir la experiencia a cualquier lugar, y que gracias a Internet se pueden distribuir fácilmente para ser reproducidos en otros lugares.

**BALIABIDEAREN
 ERABILERA
 Nola erabiltzen da?**

Aldez aurretik sortutako Webquest edo Altxorraren bila jarduerak erabili baino lehen, irakasleak aukeratu egin behar du zein erabiliko duen. Horretarako, "gomendatutako guneak" ataletan adierazitako loturak aprobetxa daitezke.

Ondoren, ikaslea edo ikasle taldea Webquest edo Altxorraren bila jarduera hori ostatatuta dagoen webgunean sartu eta adierazitako segida didaktikoa egingo dute.

Earthquest-en kasuan, gainera, ezinbestekoa da erabili beharreko ordenagailuan Google Earth programa instalatzea.

<http://earth.google.es/download-earth.html>

Mediascapeen kasuan, honako urrats hauek bereizi behar dira:

1. Jarduera edo e-ibilbidea ordenagailura behera kargatzea.
2. Ordenagailuan Mediascape programa behera kargatu eta instalatzea: <http://www.mscape.com/get-started>
3. Gailu eramangarria (PDA) konektatzea eta gailu horri Mediascape programa instalatzea.
4. Jarduera edo e-ibilbidea Mediascape programatik inportatzea.
5. Jarduera edo e-ibilbidea gailu eramangarrian (PDA) kopiatzea

Era horretako IKT ereduaren beste aplikazio bat Altxorraren bila edo Webquest jarduerak sortzea da. Horretarako, sortzaileak daude (ikus "gomendatutako guneak" atala). Sortzaile bakoitzak bereizgarri jakin batzuk ditu: erabiltzailearen erregistroa, sortutako materialak gordetzeko zerbitzua, etab. Izan ere, sortzailean sartu eta Webquest edo Altxorraren bila jarduera landu ondoren, sortutako baliabidea sarbidea ematen duen webgune edo wapgune batean kokatu behar da.

UTILIZACIÓN

El uso de una Webquest o una Caza del tesoro ya creadas requiere un proceso previo de selección por

RECURSO
¿Cómo se usa?

parte del docente. Para ello se pueden aprovechar los enlaces indicados en "sitios recomendados". Posteriormente el alumno o grupo de alumnos acceden al sitio web donde está alojada la Webquest o la Caza del tesoro y se va realizando la secuencia didáctica indicada. En el caso de las Earthquests, además, es preciso instalar el programa Google Earth en el ordenador a utilizar.

<http://earth.google.es/download-earth.html>

En el caso de los Mediascapes se deben seguir los pasos siguientes:

- 1.- Bajar la actividad o e-ruta al ordenador.
- 2.- Descargar e instalar en el ordenador el programa Mediascape <http://www.mscapers.com/get-started>
- 3.- Conectar el dispositivo portátil (PDA) e instalarle el programa Mediascape.
- 4.- Importar la actividad o e-ruta desde el programa Mediascape.
- 5.- Copiar la actividad o e.ruta en el dispositivo portátil (PDA)

Otra aplicación de este tipo de modelos TIC consiste en la generación de Cazas del tesoro o Webquest, para lo cual se dispone de generadores (ver "sitios recomendados"). Cada generador presenta características específicas: registro de usuario, servicio de almacenamiento de materiales creados...Y es que tras acceder al generador y elaborar la Webquest o la caza del tesoro, luego hay que situar el recurso creado en un sitio (web, wap) accesible.

IKASGELARAKO
GOMENDIOAK

Webquest edo Altxorraren bila jarduera bat irakasleak sortu edo ikasleek egindako jarduera didaktiko bat izan daiteke.

Aurreikusitako jarduerak egiteko, Webquest, Altxorraren bila edo Earthquest jardueraren egileek erabili beharreko programari edo web-zerbitzuari buruzko orientabideak ematen dituzte. Hala eta guztiz ere, 2.0 web-a etengabe garatzen ari denez gero, planteatutako baliabideetako asko zaharkituta geratzen dira oso epe laburrean, edo aurreikusitako lanean hobekuntza handiak eragingo dituzten tresna berriak sortzen dira. Horregatik, garrantzitsua da ikasgelan ezartzen denetik irakasleak erabili beharreko baliabidea berrikustea eta egokiak derizkion hobekuntzak edo aldaketak egitea.

Ordenagailuan programa berriak instalatzea ohiko lana izaten da jarduera horietan, eta alderdi hori kontuan hartu behar da ekipo-administratzailearen beharrezko baimenak izateko.

**RECOMENDACIONES
 PARA EL AULA**

La generación de una Webquest o una caza del tesoro suponen una tarea docente o una actividad didáctica realizada por los alumnos.

Para desarrollar las actividades previstas, los autores de una Webquest, una Caza del tesoro o una Earthquest suelen proponer orientaciones sobre el programa o el servicio web a utilizar. A pesar de ello, la continua evolución de la web 2.0 provoca que muchos de los recursos planteados queden obsoletos en poco tiempo, o que aparezcan nuevas herramientas con mejoras sustanciales en el trabajo previsto. Por ello, es importante realizar la revisión docente del recurso a utilizar antes de su implementación en el aula, incorporando las mejoras o cambios que se consideren adecuados.

La instalación de nuevos programas en el ordenador suele ser una tarea habitual en el desarrollo de estas actividades lo cual debe ser tenido en cuenta para disponer de los permisos necesarios de administrador del equipo.

**GOMENDATUTAKO
 GUNEAK
 Non aurki dezaket?**

Sortzaileak (Webquest eta Altxorraren bila jarduerak)

Teknologiaz irakastea eta ikastea. Bost Webquest sortzaile

Webquest-en hainbat sortzailearen bilduma. Honako hauetarako loturak ditu: Edutic, PHPWebquest, Generador 1, 2, 3 Tu webquest, etab.

<http://web.mac.com/a.fourcade/page2/files/ac015a7013bf5c2c08138665602d9d94-3.html>

Webquestcat txantiloiak

Google sites txantiloiak erabiliz webquest eta altxorraren bila jarduerak sortzeko proposamena (katalanez).

<http://sites.google.com/site/webquestcathome/generadors-i-plantilles>

Liburutegiak eta bilatzaileak (Webquest eta Altxorraren bila jarduerak)

Aula 21 (Webquest)

Gaztelaniazko webquesten liburutegia "Beste liburutegi batzuk" atalean adibideak eta bilatzaileak dituzten makina bat web-orri agertzen dira.

<http://www.aula21.net/tercera/listado.htm>

Aula 21 (Altxorraren bila)

Altxorraren bila jarduerari buruzko adibide eta loturak biltzen dituen web-orria. Eskualdeko bilatzaile

batzuk ditu (baliabide gehiago biltzen dituen bilatzailerik ez dagoenez gero).
<http://www.aula21.net/cazas/ejemplos.htm>

Berritzeguneak

Berritzeguneen (unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza-mailetan berrikuntza ezartzeko eta hezkuntza hobetzeko zonako eta/edo lurraldeko laguntza-zerbitzuak) sareaan barrenako baliabide-bilatzailea.
<http://a02.berritzeguneak.net/es/webquest.php>

Webquest SCORM liburutegi semantikoa

Hainbat irizpide eta bilaketa mota erabiltzea ahalbidetzen duen Webquesten bilatzea.
["http://cfievalladolid2.net/webquest/visitante/biblioteca.php"](http://cfievalladolid2.net/webquest/visitante/biblioteca.php).

PHPWebquest

PHPWebquest sortzaileaz landutako baliabideen bilatzailea. Hezkuntza-mailaren eta/edo irakasgaiaren arabera aukeratzea ahalbidetzen du eta baliabideak izenburuaren, egilearen, dataren edo jarduera motaren arabera (problema, altxorraren bila, webquest eta miniquest jarduerak) ordenatzen ditu.
<http://phpwebquest.org/newphp/>

Adibideak

Darwin Earthquest:

Etapen araberako bidaia birtuala; Charles Darwin naturalistak Beagle ontzian egindako bidaldiari jarraiki egiten da.
<http://www.earthquestdarwin.net/cas/>

Ikasleek landutako Altxorraren bila jardueren adibideak:

Niebla-ko (Huelva) San Walabonso HLHIko 5. A mailako ikasleek diseinatuak.
<http://perso.wanadoo.es/alhero/mipag/cazas/index.htm>

Mediascapeak

Itinerarium (e-ibilbideak)

Mediascape teknologia erabiliz landutako e-ibilbideen adibideak
<http://www.itinerarium.cat/mobile/?lang=es>

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?**Nola erabili e-ibilbide bat**

Behera kargatzeko eta instalatzeko gida (katalanez)

<http://www.laselvaturisme.com/files/erutes/Instruccions.pdf>

Generadores (Webquests y Cazas del tesoro)**Enseñar y aprender con tecnología. Cinco generadores de Webquest**

Recopilación de algunos generadores de Webquest. Incluye enlaces a Edutic, PHPWebquest, Generador 1, 2, 3 Tu webquest...

<http://web.mac.com/a.fourcade/page2/files/ac015a7013bf5c2c08138665602d9d94-3.html>

Plantillas Webquestcat

Propuesta de generación de webquests y cazas del tesoro utilizando plantillas de google sites (en catalán).

<http://sites.google.com/site/webquestcathome/generadors-i-plantilles>

Bibliotecas y buscadores (Webquests y Cazas del tesoro)**Aula 21 (Webquest)**

Biblioteca de webquest en castellano. En el apartado "otras bibliotecas" se ofrece un sinfín de páginas con ejemplos y buscadores.

<http://www.aula21.net/tercera/listado.htm>

Aula 21 (Cazas del tesoro)

Página de ejemplos y enlaces sobre cazas del tesoro. Incluye algunos buscadores regionales (a falta de un buscador que integre un mayor número de recursos).

<http://www.aula21.net/cazas/ejemplos.htm>

Berritzeguneak

Buscador de recursos en la red de los berritzegunes (servicios de Apoyo de carácter zonal y/o territorial para la innovación y mejora de la educación en los niveles de enseñanza no universitaria en Euskadi)

<http://a02.berritzeguneak.net/es/webquest.php>

Biblioteca semántica de Webquest SCORM

Buscador de Webquest que permite utilizar diferentes criterios y tipos de búsqueda
<http://cfievalladolid2.net/webquest/visitante/biblioteca.php>

PHPWebquest

Buscador de recursos elaborados con el generador PHPWebquest. Permite su selección por nivel educativo y/o asignatura, ordenando los recursos por título, autor, fecha o tipo de actividad (problema, caza del tesoro, webquest o miniquest).
<http://phpwebquest.org/newphp/>

Ejemplos

Darwin Earthquest:

Viaje virtual, por etapas, siguiendo el periplo que el naturalista Charles Darwin realizó a bordo del buque Beagle.
<http://www.earthquestdarwin.net/cas/>

Ejemplos de Cazas del tesoro elaboradas por alumnos.

Diseñadas por los alumnos y alumnas de 5ºA del CEIP San Walabonso de Niebla(Huelva).
<http://perso.wanadoo.es/alhero/mipag/cazas/index.htm>

Mediascapes

Itinerarium (e-rutas)

Ejemplos de e-rutas elaboradas con la tecnología Mediascape
<http://www.itinerarium.cat/mobile/?lang=es>

Como utilizar una e-ruta

Guía para la descarga e instalación (en catalán)
<http://www.laselvaturisme.com/files/erutes/Instruccions.pdf>